

Prest!



BERBETAN: OLATZ SUAREZ, ALAZNE IBARRONDO eta JON FANO I. BARRUTIKO GREBA KOMITEA

ERREPORTAJEA: SUIZIDIOAREN INGURUAN GOGOETATZEN BARKUA: EIDABEK EKOITZITAKO OBRA BERRIA

47-248-249-250-251



Sustatzailea

Verbaizu
— euskara elkarte —

Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

bilbokoaldizkariak@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Jon Zubieta - Itsaso Larramendi Elexgaray		Iritzia	4
	Elisabetta Bartolini		Gurera etorriak	5
e	erreportajea Suizidioaren inguruan gogoetatzen			
	<i>Badira asteak Deustuko hainbat txokotan orekan dabiltzan bi oinen irudia ikus daitekeela. Orekan edo, akaso, des-orekan esan beharko, hala baitio irudiaren goiburua, 'Desoreka, suizidioaren inguruko jardunaldiak'.</i>			6
	Zorionak, Intxixu!		Eskolak	10
	George Vivian eta Deustuko lehenengo paisaia artistikoa (1833)		Behin batean	12
	No hay doncellas para tanto bufón		Artikulua	14
b	berbetan OLATZ SUAREZ, ALAZNE IBARRONDO eta JON FANOrekin			
	<i>Azaroaren 30ean greba orokor feminista baterako deialdia egin du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Egun horretan mobilizatzeko, Deustun, San Inazion, Arangoitin eta Erriberan greba komiteak sortu dituzte. Hala, hilabete honetako elkarrizketarako 1. Barrutiko Greba Komiteko 3 kiderekin izan gara: Olatz Suarez, Alazne Ibarondo eta Jon Fano.</i>			16
	Pedro Arrupe pasabidea (2003)		Irudiak berbetan	21
KIROLA Entrenatzen proiektua, kirola euskararen babesgune bilakatzea helburu				24
ANTZERKIA Emakumeak ere protagonista, Eidabek ekoiztitzako obra berrian				
NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi				
KULTUR TXOTX Patri Muñoz eta Ander Anakabe Lekue				



Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Asier Cobos

Erredakzioa: Axular Arostegi, Asier Cobos, Jon Zubieta, Itsaso Larramendi, Ainhoa Maiztegi, Patri Muñoz, Ander Anakabe, Nerea Olaziregi, Hektor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Berto-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Prest!

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.500



Jon Zubieta
Sanitarra

Etxeak eta bizitzak

Azkenaldian ez dira gutxi izan telebistan, aldizkarietan eta bestelako komunikabideetan etxebizitzaren inguruan ikusi eta entzun ditugun albiste eta eztabaidak. Izan ere, bizi dugun ziurgabetasun garaian, bereziki latzak dira guttiz oinarritzkoak zaizkigun bitartekoen inguruko problematikak.


Etxebizitzaren kasuan, gure auzoetako egoerari erreparatu besterik ez dago. Salbuespenak salbuespen, gutxi dira 1000 €-tik behera topa daitezkeen alokairuak, bizitzaren garestitzeak inoiz baino gogorrago kolpatzen gaituen momentuan. Esan gabe doa gazteontzako eta beste hainbat sektoreentzako gaur egun etxebizitza bat erostea errealitatetik urrunegi gelditzen den ametsa dela.

Gauzak horrela, gazteok gure auzoetan ezagutzen eta maite ditugun txokoetan bizitzen jarraitzeko dugun asmoa itzaliz doa, bizi-baldintzen menpeko erbesterratuak izango garela onartzen dugun heinean. Horrez gain, kapitalaren eta espekulazioaren munstroak parez pare irekita topatzen ditu gure auzoetako ateak, besteontzako eskuraezinak diren etxebizitzak nahieran erosteko eta horiekin nahi bezain beste negozio egiteko, betiere irabazien logika krudelaren baitan.

Zentzu horretan, eta egoera gero eta okerragoa dela kontuan hartuta, borrokatu dezagun etxebizitza berme bat izan dadin guztiontzako, eta inoiz ez kezka bat.



Itsaso Larramendi Elexgaray
Hiriaz eta beste



Mapak errealitatea eraikitzeko

Mapak marraztea lurraldea interpretatzea da, errealitatearen zenbait pieza hartu eta haren irudi bat osatzea. “Mapa lurraldea baino interesgarriagoa da”, dio Houellebecq-en *Mapa eta lurraldea* liburuko protagonistak. Michelin errepide-mapen argazkiak ateratzen ditu pertsonaiak, eta izenburu horren pean argazki erakusketa bat antolatzen du istorioaren hasieran.

Autorea bera maite ez dudan arren, bat egiten dut liburuko protagonistak mapekiko duen filiarekin, mapak lurraldeari eta hiriari modu berrietan begiratzeko tresna liluragarriak direlako.

Pentsatu bestela, hauteskundeon ondorenean, botoen araberako mapek nolako bazka ematen diguten lagun arteko

elkarrizketa luzeetarako. Edo zein polita den *Queering the map* ekimena, LGTBIQA+ komunitatearen esperientziak lurraldean kokatu eta espazio fisikoarekin harremanetan jartzen dituen. Situazionistek sortutako kartografia zoragarriak ahaztu gabe, hirien deskribapen emozionalak biltzen zituztenak.

Greba feminista orokorrera goaz, edo joan gara jada hau argitaratzen denerako. Eta bereziki gustatu zaizkit grebaren beroketarako antolatu diren ibilbide aldarrikatzaileak, baita horietarako sortu diren irudikapenak ere. Bai Bilboko zentroan, eta bai gure barrutian, zaintzarako espazioak ikusarazi eta lotu dituzte mapek, gure eguneroko ingurunearen geruza ikusezin hori lehen planora ekarriz. Zaintzarako espazioez inguratuta baikaude, sarri hormigoia soilik ikusten dugun arren.



Elisabetta Bartolini

Jatorria: Florentzia
Bizitokia: Bilbo
Lanbidea: Zerbitzaria



Noiz eta zergatik heldu zinen Euskal Herrira?

Iaz iritsi nintzen, 2022ko urtarrilean. EHUn sei hilabete-ko erasmus bat egitera etorri nintzen, arte garaikidearen erakusketa eta kontserbaziorako masterra egiteko asmoz. Bilbo aukeratu nuen Unibertsitateak ospe handia duelako eta bane-kielako hirian arte garaikidearen mugimenduak presentzia handia duela. Masterra amaitzean bertan geratzea erabaki nuen, lana aurkitu nuen eta, bitartean, EHuko irakasle batzuekin harremana mantentzen dut, nire ikerketarekin jarraitzeko.

Aurretik zer ezagutzen zenuen euskal gizarteari buruz?

Oso gutxi, egia esan. Banekien hemen gaztelaniaren oso bes-telako hizkuntza bat hitz egiten zela, ez zuela latindar jatorririk, eta asko kostatuko zitzaidala ulertzea! Horretaz gain, Euskal Herriak espainiar estatuaren independentziarako egin zuen borrokari buruz zer edo zer entzunda neukan arren, Euskal Herrian bizitzeko eta hemengo jendearekin hitz egiteko aukera dudanetik, konturatu naiz borroka hori uste baino handiagoa dela; nire inguruan, Italian, Euskal Herriak iraultzaile izatearen eta bere eskubideen alde bo-

rrokatzearen ospea du, horrek liluratu egiten ninduen. Gastronomia ona izatearen ospea ere badu kar-kar.

Hona iritsi zinetetik zer da gehien harritu zaituena?

Zalantzarik gabe, euskara eta euskal kultura oro har, baina harritu baino gehiago esango nuke liluratu egin nauela; izan ere, nire GALEan frankismoaren azken urteetan euskara sustatzeko mugimenduaren historia berreraikitzen saiatu nintzen, mugimendu horren ekoizpen grafikoa lehen mailako iturri gisa erabiliz. Euskal Herriko hainbat artxibotan bilaketa bat egin nuen materiala biltzeko, eta garaiko euskal artista eta aktibistak elkarriketatzeko aukera izan nuen. Esperientzia zirrargarria eta harrigarria izan zen niretzat.

Zure jatorrizko hiria Florentzia da; orain, aldiz, Bilbon bizi zara. Desberdintasun handia somatzen duzu?

Bai, Florentzia oso hiri polita da, historia asko duena eta, zoritxarrez, turismora saldu dutena; horregatik, niretzat oso zaila zen han bizitzea. Bilbon, ordea, askoz hiri bizigarriagoa aurkitu nuen, non auzoko eta komunitateko bizi-modua oso indartsua den.

Aukerarik izan duzu euskara ikasteko?

Iaz Karmelan egindako ikastaro batean oinarritzko ezagutza jasotzeko aukera ere izan nuen. Aurten, AEK-en izena eman dut A1 mailan. Hemengo asanbladetan ia beti euskaraz hitz egiten da, beraz pixkanaka entzuten ikasten ari naiz.

Italiar gastronomia oso ezaguna da mundu osoan. Bilbo inguruan dauden gisa horretako jatetxeak onak direla esango zenuke?

Probatu ditudanak oso ondo zeuden egia esan, baina, bueno, janari italiarra jateko oportetara itxaroten dut. Bestalde, euskal sukaldaritza asko gustatzen zait.

Epe luzerako hemen geratzeko asmoa duzu?

Momentu honetan, hemen urte batzuk gehiago geratzea da asmoa. Nire jendearengandik urrun egotea gogorra da, baina oraingoz hemen imajinatzen dut etorkizunean.

Zer duzu faltan gehien?

Familia eta lagunak oso garrantzitsuak dira niretzat; hasieran ez nuen uste haiengandik urrun bizi nintekeenik... baina gizakiak egokitzeko gaitasun handia du eta, beraz, hemen nago.



Urriaren 20ko ekitaldian ateratako argazkia.

SUIZIDIOAREN INGURUAN GOGOETATZEN

Badira asteak Deustuko hainbat txokotan orekan dabiltzan bi oinen irudia ikus daitekeela. Orekan edo, akaso, des-orekan esan beharko, hala baitio irudiaren goiburua, 'Desoreka, suizidioaren inguruko jardunaldiak'.


Testua eta argazkiak: Jone Gartzia eta Axular Arostegi

Kanpainaren atzean dagoen eragilea “Zirikatzeten!” formakuntza taldea da. 2003. urtetik Deustun hainbat gairen inguruko hausnarke-ta sustatu eta formakuntzarako tresnak garatu ditu: aldizkariak, hitzaldiak, formakuntza saioak, jardunaldiak, liburuxkak, dokumentalak, mugikorrerako aplikazioak... 20 urte haue-tan askotariko gaiak landu dituzte taldekideek; hala nola, krisia, industriaren birmoldaketa, jai eredia, okupazioa, herri boterea, komunika-zioa, jakintza praktikoak...

Oraingo honetan, suizidioaren inguruko jardu-naldiak antolatzea erabaki du taldeak. Lorena G. Ruiz-Clavijo kideak PREST! aldizkariari azaldu dio zer dela-eta aukeratu zuten gai hura. Ikastur-tean zehar landuko duten gaia aukeratzeko, beti erreparatzen omen diote herrian identifikatzen dituzten beharrei. Lehendabizi barne mailan

lantzen dute auzia eta gero auzokideen artean zabaltzen dute gogoeta, normalean formakuntza saioen, hitzaldien edo aurkezpenen bidez.

Ruiz-Clavijok azaldu bezala, ia bi ikasturte eman dituzte oraingo jardunaldien inguruan jira eta bira. “Ideia-zaparrada bat egin genuen eta hainbat gai atera genituen: burmuinaren eta gogamenaren arteko banaketa, buru-osasuna, osasun mentala gazteen artean, heriotza...”. Pandemiatik atera berri, kideak dio inork ez zuela COVID19-a landu nahi; baina, ezinbestean, horrelako gaiak ateratzen zituzten. “Heriotzari buruz hitz egiten hasi gine-nen, beldur apur bat ematen zigun hura lantzeak, baina bileraz bilera errepikatzen joan zen. Osa-sun mentolarekin nahastu genuenean atera zen suizidioaren gaia”. Horrela jabetu ziren estigmaz jositako gaia zela eta haiei ere auzia mahaigainera-tzea kostatzen zitzaie-la.



Azaroak 11ko jardunaldia.

Azkenean, itzuli askoren ostean, ikusi zuten taldekide guztiek gaiarekiko nahikoa distantzia zutela eta ez zutela hura lantzea eragotziko zien minik sentitzen. “Beti esaten da suizidio kasu batetik pertsona bateko distantziara gaudela”, dio Ruiz-Clavijok, eta hori zen euren kasua. Hain ezkutuko gaia zenez, zer ikasi izango zutela pentsatu zuten.

Lehenik, barrura

Formakuntza taldean bi urtez aritu dira gaia hainbat ardatzetatik jorratzen, eta ez alferrik. Izan ere, eskuratzen zuten jakintza oro motz geratzen zitzairen. Zenbait liburu irakurri zituzten, suizidioaren inguruko estatistikak aztertu zituzten eta Osakidetzaren protokoloak ere ikasi zituzten.

Horrela konturatu ziren gaian sakontzen hasi aurretik zituzten hainbat hipotesi ez zirela betetzen. Adibidez, ikusi zuten ez direla beti buruko gaitzen bat diagnostikatuta duten pertsonak beren buruaz beste egiten dutenak, estatistikek ez dutela hain alde handia erakusten talde zaugarrien eta jendarteko maila sozioekonomiko altuko pertsonen artean, edo beren buruaz beste egiten duten emakumeak ez direla gizonak baino gehiago.

Hasierako usteak ezeztatzen joan zirenean, adituengana jotzea erabaki zuten. EHUko suizidiologia graduondoko kideekin jarri ziren harremanetan eta, hortik, hainbat profesionalekin hitz egitea lortu zuten. Elkarriketa horiek izan ziren urrian abiatu zuten jardunaldi zikloaren hasia.



Deustuko kaleetan zehar Desorekaren hainbat pegatina jarri dira.

Gero, kanpora

Ekimenaren baitan, hiru hitzaldi saio antolatu dituzte “Zirikatzen!”-eko kideek Deustun: urrian, azaroan eta abenduan. Lehena urriaren 20an egin zuten Deustuko Gazte Lokalean. Iker Peregrina irakasle, neuropsikologo eta suizidologian aditua gonbidatu zuten gaiaren inguruko ikuspuntu orokorra emateko. Peregrinak suizidioaren inguruko kokapen teoriko eta filosofikoa egin zuen, hainbat datu estatistiko eman zituen eta suizidioarekin lotutako esperientziak bizi dituzten pertsonekin jokatzeko jarraibide batzuk azaldu zituen.

Arratsalde hartan hogeit hamar pertsonatik gora elkartu ziren gaztetxean suizidioaren inguruan gogoetatzeko, eta hausnarketak askorako eman zuen. Bertaratutakoen parte-hartzea hain izan zen handia eta sakona, ezen saioa hiru ordu baino gehiago luzatu baitzen.

“Zirikatzen!” taldeko kideak oso pozik daude jardunaldiak izaten ari diren harrerarekin: “Adin eta profil oso desberdinetako 25-30 pertsona inguru gerturatu dira saio bakoitzera, batzuk gaiarekin lotutako profesionalak eta beste batzuk ez, eta askok errepikatu egin dute. Hirugarren saioa handiagoa

izango da bai parte hartuko duten hizlariei dagokienez bai iraungo duen denboragatik, eta jende gehiago gerturatzea espero dugu”.

Suizidioaren inguruko jardunaldien bigarren saioa azaroaren 11n egin zuten, Gazte Lokalean hura ere. Orduko hartan, Gabriel Gonzalez kazetari judicial, suizidologian aditua eta *Hablemos del suicidio* (Hitz egin dezagun suizidioari buruz) liburuaren idazlearen txanda izan zen. Hedabideek suizidioaren auzia nola lantzen duten azaldu zuen bertaratu ziren hogeita hamar entzuleen aurrean.

Hizlariak, lehendabiziko momentutik, agerian utzi nahi izan zuen ez dela batere erraza hedabideek duten zeregina gertaera hauen aurrean. Nola eta noiz informatzeko zailtasuna onarturik, kazetariak beste auzi korapilatsu batean jarri zuen fokua: zertarako komunikatu suizidioarekin lotutako gertaeren inguruan. Hain zuzen ere, Gonzalezen arabera, ikerketa ugari frogatu dute gai honi buruz hitz egiten duten albisteek suizidioen igoera nabarmena eragiten dutela, Werther delako efektua edo kutsadura efektua deritzona. Aitzitik, suizidioaren inguruan arduraz hitz egiteak ez du esan nahi gaiari atentziorik eman behar ez zaionik, beste zenbait arrazoren artean, problematika tabu izatera eramaten duelako, batik bat.



Azaroaren 11n, Gabriel Gonzalez hitzaldian ateratako argazkia.



Musika inprobisazioa ere bultzatzen dute.

Kazetari nafarraren hitzaldia eta gero, bertaratutako en arteko solasaldia antolatu zuten “Zirikatzen!”-eko kideek. Jardunaldiaren zati horretan, era batera edo bestera, denek nabarmendu zuten suizidioaren aferari buruz hitz egiteko garrantzia eta gazetarik hezkuntza emozionala lantzeko beharra.

Hirugarrena eta azkena

Abenduaren 16an emango diote itxiera suizidioaren inguruko hitzaldi zikloari. Egun horretan, espezialitate ezberdinetako kideak gonbidatu dituzte nork bere esperientzia eta jakintza esparrua ardatz hartuta gaia landu dezan. Orotara, 12 hizlari elkartuko dituzte, tartean irakasleak, osasun publiko zein pribatuko beharginak, sindikatuetak langileak, buruko osasuna lantzen duten duten militanteak... Jende asko elkartuko delakoan, saioa Bizinahi Auzo Gunean egitea eta goiz osoan zehar luzatzea aurreikusi dute.

Hala, bi zatitan banatuko dute saioa: hasierako partean hizlariari emango diete hitza, mahai-inguru formatuan, eta bigarren zatian parte-hartzaile guztien arteko solasaldia egin nahi dute. Giro atsegina eta eroso sortze aldera, hamaiketako eta bazkaria ere antolatuko dituzte.

Barrutik kanpora

“Zirikatzen!”-en ohikoa duten gisan, behin gaia herrian zabaltzeko jardunaldien ostean, berriz landuko dute barne mailan, ondorioak atera eta herriari itzultze moduko bat emateko. Forma ugarietan egin dute hori azken aldietan: aldizkari formatuan, liburuxka gisa, bideo-dokumental moduan, etab.

Momentuz ez dute erabaki zelan egingo duten oraingoan, baina badute ideien bat buruan bueltaka. Oraingoan, lehen bi saioen audioak igo dituzte sarera (Zirikatzen.info webgunean eta Ivoox-en daude entzungai) eta gaia borobiltzeko irratsaio bat egitea pentsatu dute, baina erabakitzeke dute oraindik ere.: “Hausnarketa bat izango da, ez du zertan jarrera hartze bat izan, eta ez dakigu oraindik ere zein formatutan izango den, baina herriari itzultze bat egingo diogu”.

Erreportajea amaitzeko eta elkarrizketa agurtzeko, Ruiz-Clavijok auzokide guztiak gonbidatu nahi ditu abenduaren 16ko saioan parte hartzera: “Oso interesgarria izango da. Gainera, gure jendartearen inguruan hausnartzea baino ez zaigu geratzen”. Informazio gehiago nahi dutenek Zirikatzen.info atarian eta sare sozialetan aurkituko dute.



**EUSKARAREN
INTERPRETazio
ZENTRO BERRIA
BILBON,**

ZATOZ!

www.euskararenetxea.eu


Euskararen Etxea


EUSKARAREN
INTERPRETazio
ZENTROA


Bizkaia



ZORIONAK, INTXIXU!

Intxixuk 46 urte bete zituen urriaren 17an



Testua eta argazkiak: Intxixu Ikastola

Goizak erabat argitu aurretik, urduritasuna sumatzen da Intxixu Ikastolaren inguruan. Haur txikiak eskolaratzeak dakarren berritasun eta bizipenen zurrumbilo betean, familiak euren pozen eta zalantzen ezinegonean daude, eta irakasleak euskarak behar duen bultzadaren gidari izateak dakarren kezka ere, baina gogotsu, guztion nahi eta ametsak gauzatzeko arduradun nagusi direla jakitun. Horrela geunden 2023ko urriaren 17an, eta antzera izango ziren San Inazio 1977ko urriaren 17ko goiz hartan protagonista izan ziren ume, familia zein maisu-maistrak.

1977an, kezka eta ardura bereziz bizi zuten hainbatek euskara zein euskal kulturaren inguruko egoera. Gure haur eta gazteak euskaraz ikasteko aukerarik gabe zeudela ikusita, ZUBIBARRI taldearen beste hainbat ekimenen artean, San Inazio INTXIXU IKASTOLA zezelan gorpuztu beharra zegoela deliberatu zuten. Herri ekimena eta guraso zein au-

zokideak, elkar hartuta, izan ziren lehen urratsak emateko ardura hartu zutenak: txosnak ipiniz lehen diru-apurrak batuz, lokala Baztan plazako elizako apaizari eskatuz, irakasleak lortuz, auzoko sendiak umeak euskaraz eskolatzea animatuz...

Horrela, urriak 17 hartan, eliza atzeko bi gelatxotan 2 andereño gazte eta adin ezberdinetako 23 haur abiatu ziren ametsarekin. Izena bera aukeratzea bitxia izan zen. Garai hartan Intxixu izeneko antzerki talde bat ezagutu zuten, eta euren antzezlan bat aurkezteko erabili zuten kartela andereñoen eskuetara heldu zen. Intxixuren esanahia ikertu, eta jakin zuten Oiartzun aldeko basoetan bizi omen ziren aztitxoei esaten zitzaizela "Intxixu"; txikiak, bihurriak, langileak eta magikoak ei ziren... eta jakinda gurera etorri behar zuten umeak ere txikiak, bihurriak, langileak eta nolabait magikoak izango zirela, proiektu berria izendatzeko hura aukeratu zuten.



Aurtengoan, 46 urte betetzen genuela jakinda, goizeko 9:00etan musikarekin hartu gintuen Intxixuk eta sarrera apur bat alaiago egiteko beta izan genuen. Aurreko egunetan egindako apaingarriek eta 46 urteko ibilbidea gogoratzin zigun pankarta ederrak piztu zizkiguten begiak sarrera, pasabide eta ikasgeletan. On-

doren, 10:45ean 2 urtetik hasita, 6. mailara arte jolastokian batu ginen. ZORIONAK ZURI berezia abestu genion Intxixu ikastolari, TXIS-TUMAN musikari trebearen laguntzaz. Euskal Herriko txirularen doinuz lehenengo, modu rockeroagoan gero, country itxuran, jazzero-jazzero, reggae moldean eta diskoteka doinuan ere saiatu ginen. Eztarriak berotuta eta gorputzak dantzarako prestatu eta gero, 6. mailakoen gidaritzapean Txulalai euskal dantza elkar hartuta dantzatzuz borobildu genuen ekitaldia. Jolastorduez gozatu ostean, sorpresaxoa zain genuen gelan hamaiketako gisa jaso genuen paketetxoarekin.

Urteotan euskara eta euskal kultura auzoko etxeetara eta gure kaleetara zabaltzeko ahaleginean aritu diren guzti-guztiei gure esker ona!

Izan zirelako gara eta garelako izango dira!

ZORIONAK guztioi eta GORA INTXIXU!



OLDARRALDIAREN AURREAN EUSKARAREKIN BAT EUSKARAZ BAT

MANIFESTAZIOA
AZAROAK 4
17:00
EUSKALDUNA
BILBO

'K EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



GEORGE VIVIAN ETA DEUSTUKO LEHENENGO PAISAIA ARTISTIKOA (1833)

George Vivian da, gaur egun dakigunaren arabera, Deustu paisaia artistiko bihurtu zuen lehen marrazkilaria. Itxura guztien arabera, 1833an egin zuen, lehenengo karlistada piztu baino lehen. Ea ezagutzen duzuen garai hartako Deustu!



Testua: Hektor Ortega

Lerro hauekin batera ageri den irudia *Spanish Scenery* izeneko liburuan agertu zen. Londresen argitaratu zen, 1838an. Egiletza konpartitua da, eta hein batean ezezaguna. Izan ere, litografia moduan plazaratu zen, litografoaren izenik gabe. Liburuko litografoak hiru izan ziren: Louis Hague, Thomas Shotter Boys eta Paul Gauci. Horietako batek egingo zuen. Baina plantxa hori osatzeko jatorrizko marrazkia, alegia, paisaia horren zirriborroa, George Viviani zor zaio, zalantzarik gabe.

George Vivian (1798-1873) ingelesa zen, aberatsa eta bidaiaria. Aita-amak ongi hornitu zuten lehenengo eta herentzia oparoa utzi zioten gero. Berak, besteak beste, European barrena ibiltze-

ko erabili zuen. Izan ere, 1818-19an Austria eta Balkanetan zehar bidaiatu zuen. 1824an Ekialde Hurbilera joan zenean, Lord Byron idazle erromantikoa ezagutu zuen. 1829an Londreseko Travellers Clubean bazkietu zen. 1833an eta 1837an Iberiar penintsulatik ibili zen hara-hona.

Azken bidaia horietan egindako marrazkiekin liburu bi osatu zituzten. Lehenengoa, arestian aipatutako *Spanish Scenery*. Bigarrena, berriz, 1839an kale-ratutako *Scenery of Portugal and Spain*. Deustuko irudia lehenengoan agertu zen. Liburuak Bilbo aldeko beste estampa bat zekarren: Campo Volantinetik ikusita, Abando, Uribitarte uhartea eta Bilbo.

Paisaien estampa edo ilustrazio liburuak ohikoak eta estimatuak ziren sasoi hartan. Baina bitxiene da liburu horiek deuseztatuak izateko argitaratzen zituztela. Alegia, helburua zen estanpak liburutik erauzi eta etxeetako hormetan eskegitzea, apaingarri. Liburu iraungikorrek ziren, beraz. Ilustrazioak banaka plazaratzea garestiagoa zen.

Esan dugun bezala, Vivian ez zen artista, bidaia-ri aberatsa baizik. Gustuko zuen arkitektura eta arlo horretaz polito jantzita zegoen. Hortaz, ildo erromantikoaren eraginpean jardun bazuen ere, pasaia eta, batez ere, eraikinak bere horretan jaso zituen marrazkietan, ziren bezalakoak. *Spanish Scenery* 29 ilustrazio zekartzan. Edizio bi ikusi ditugu 1838an kaleratuak, bata kolore bitan eta bestea koloretan.

Barry Ife irakaslearen aburuz, Vivianen zirriborroak ikusita argi dago 1833an egin zuen bidaia-aren nondik norakoa: Euskal Herrira Baionatik sartu zen (segurutzik bertara ontziz helduko zen Ingalaterratik). Baionatik Donibane Lohizunera eta Donostiara joan zen; Donostiatik Bilbora, eta Bilbotik Gasteizera. Araba utzi zuenean Burgosera jo zuen eta ez zen gehiago Euskal Herrira itzuli.

1837an, berriz, Portugalen eta Andaluzian barrera ibili omen zen Vivian. Kontuan hartu behar dugu artean lehenengo karlistada gori-gori zegoela eta gerra giroa nagusi zela Hego Euskal Herrian.

Perspektiba harrigarria

Egia esan, litografia lehenengoz ikustean, gaitza da Deustu identifikatzea. Ibaizabal ikusten dugu eta, uraz bestalde, eliza bat, etxe pare bat eta, muino

baten buru, beste eraikin bat. Liburuak azalpen xume bat zekarren: "Bilbo. Ikuspegia pasealekutik, Portugaleteko itsasadarrean behera. Mendixkaren gaineko eraikina kaputxinoen komentua da".

Beraz, muinoko eraikina badakigu zer den: Deustuko kaputxinoen komentua, XVIII. mendearen erdialdean Goiri auzoan (gaur egungo Arangoitin) eraikitakoa. Bitxia da kontua, marrazkia egin (1833) eta liburuan agertu bitartean (1838) komentua zeharo galdu zelako, karlisten eta liberalen arteko gudu latzetan suntsituta. Beraz, guretzat balio handiko irudia da, ez baitugu ezagutzen komentua ageri den estampa gehiago.

Behin eliza eta komentua kokatuta, marrazkia nondik dagoen eginda ebatzi behar dugu. Lehenengo begiratuan, ibaiaz bestaldetik marraztu zela pentsa genezake, ezker ertzetik, Abando aldetik alegia. Baina horrela izatekotan, ez genituzke ikusiko eliza eta kaputxinoen komentuan ageri diren bezala. Harrigarria bada ere, marrazkia eskuin aldetik bertatik eginda dago, eta badakigu nondik: gaur egun Salbe esaten diogun lekutik, Campo Volantineko hasieratik. Ibaiaren bihurtunea ikusten dugu, beraz, eta ez ibaiaren uraz urruti. Liburuaren oharrak aipatzen zuen pasealekua, zalan-tzarik gabe, Campo Volantinekoa da. Are gehiago: Bilboko beste ilustrazioa, Abando, Uribitarte eta Bilbo ageri direna, leku horretatik bertatik eginda dago. Bata aurrera begira, bestea atzera.

Azken ohar bat: eskuinaldean ageri den etxe dotorea oraingoz ezin izan dugu identifikatu, baina ez da Goossens jauregia (gaur egungo Botikazarra institutua), inon argitaratu den bezala.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



BEKOERRI KULTUR-ELKARTEAK BERE LOKALEKO ATEAK ITXI DITU

Ateak itxi, leihoak irekitzeko. Esaldi horrekin agurtu dute erriberatarrek Bekoerri kultur-elkarteko lokala. Erabakia hartzea zaila izan arren, aurrera egin ahal izateko, ezinbesteko pausoa dela uste dute.

Testua: Nerea Olaziregi

Hasiera guztiek omen dute amaiera bat eta 13 urteko ibilbidea eta gero, Erriberako Bekoerri kultur-elkarteko lokalari berea heldu zaio. Urrian egin zuten agur-jaiara adin guztietako jendetza bertaratu zen hainbat auzotatik, bertan bizi izandako guztiagatik topa egitera. Izan ere, erriberatarren topalekua ez ezik, ingurukoentzat ere toki erreferentea izan da. Bertan, hainbat jarduera kultural, politiko eta ludiko antolatu izan dira urte hauetan zehar.

Trikitalari eta albokariak hasiera eman zioten bazkideek prestatutako azken jaiari eta Enara kantautoreak jarraitu zuen festa musikaz girotzen. Ondoren, elkartearen ibilbidea laburtzen zuen *performance-a* egin zuten. Txikiak hari luze batekin jendea inguratzen hasi ziren, 'bekoerriar' batek testu bat irakurtzen zuen bitartean:

- Erabakia ez da erreza izan - esan zuen - Haria luzatu dugu ahal beste, baina ez genuen apurtzerik nahi. Endredatu gara, baina korapiloak askatzea lortu ditugu.

13 urteetan egindakoak eta bizi izandakoak zerrendatzen hasi zen gero: urtebetetze festak, bazkariak, antzerkia, zinema, asanbladak, hitzaldiak, uholdeak, garbiketak, kontzertuak, propaganda, eztabaidak, konplizitateak...

- Zerbait bukatzen den bakoitzean, beste zerbait hasten dela jakin badakigu - jarraitu zuen.



- Horregatik diogu zenbaitetan ateak itxi egin behar direla leihoak ireki ahal izateko. Ahultasunetik ere, indarra eraiki daitekeelako - Txalo zaparrada batekin, haria kaleraino eraman eta bertan utzi zuten.

Bideo batean bildu zituzten argazki zaharrez gozatzeko, jateko, edateko, karaokerako eta dantzarako ere parada egin zen.

Hunkituta agurtu zuten orain arteko topagunea baina harrotasunez begiratzen diote etorkizunari. Lokalik gabe ere, Bekoerriko egitasmo eta ametsek bizirik jarraitzen dutelako. Aurtengo jaietan atera zuten kamisetaren leloak esaten duenez, "nire amaren etxea defendatzen" segituko dute. Eta gaur egun, Erriberan, asko dago defendatzeko.



Erabili meloia

Ez egin erosketak oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin




www.kontsumobide.eus







NO HAY DONCELLAS PARA TANTO BUFÓN

Olatz Basabek “Deserosotasuna” hitza erabili du bere 14 artelanez osatutako obra definitzeko. Erakusketa Basaurin izan da ikusgai irailetik urrira arte.

Testua: Andoni Lopez eta PREST!

“Berriz presiorik gabe horrelako prozesu batean lan egiteko gogoia dut”, azaldu du Olatz Basabe San Inazioko bizilagunak bere lehenengo erakusketaren inguruko gogoeta eginez. Izan ere, honakoa nahiz eta prozesua estresagarria izan dela onartu, bigarren bat egiteko prest eta gogotsu dagoela argi adierazi du.

Erakusketak artistaren Master Amaierako Lanean izan du oinarria. Horretarako, teknika anitzak ez ezik, hainbat material ezberdin erabili izan ditu erakusketa narratiboa sortu nahian; hala nola, sabanak eta mihiseak. Hala ere, artistak argi utzi du obra honen bitartez ez duela “perfekzioa” bilatu, eroso sentitzen ez den esparru berri batean aritzeak ikasketa prozesu bat dakarrelako.

Basabe berak prozesuaren introspektzio gisa definitu du erakusketa, kontrolik eta helburu zehatzik gabekoa, hausnarketa egitera bultzatzen zaituen horietakoa: “Artistek zer nahi duten eta ideia buruan dutela lan egiten dutela uste dugu, eta ez da horrela (...) lan honek ideia hori desmuntatzen du”.


Hona hemen aurkeztutako obretako batzuk:



PV=nrT (2023). Akrilikoa oihal gainean.



No hay doncellas para tanto bufón (2023).



Deriva 2 (2022). Grafittoa paper gainean.

berbetan

OLATZ SUAREZ, ALAZNE IBARRONDO eta JON FANOekin

1. Barrutiko Greba Komitea

“Ezinbestekoa iruditzen zaigu zai



*Azaroaren 30ean greba orokor
feminista baterako deialdia egin
du Euskal Herriko Mugimendu
Feministak. Egun horretan
mobilizatzeko, Deustun,
San Inazio, Arangoitin eta
Erriberan greba komiteak sortu
dituzte. Hala, hilabete honetako
elkarrizketarako 1. Barrutiko
Greba Komiteko 3 kideekin
izan gara: Olatz Suarez, Alazne
Ibarrondo eta Jon Fano.*

zaintza lanak guztion eskura izatea”

Azaroaren 30ean Greba Orokor Feminista baterako deialdia egin duzue. Zer da mobilizazio horren bitartez aldarrikatu nahi duzuen?

Olatz Suarez: Ekimen mobilizatzaile horrekin lortu nahi duguna zera da: zaintza eskubide kolektiboaren aldarriak eztabaida politikoaren erdigunea hartzea. Horretarako, gure iritziz, zaintza sistema publiko komunitarioaren eraikuntza bat aldarrikatzea eta gaur egun zaintza esparruan diharduten langileen eskubideen alde egitea dira tresna aproposenak.

Alazne Ibarondo: Gaur egungo zaintza sistema guztiz desegokia eta bidegabekoa dela uste dugu. Gainera, zeharo feminizata dago. Nire ustez, beste opresio bide bat da emakumeentzako. Horregatik, aldatu egin behar da eta, horretarako, administrazio publikoen eta gizarte osoaren parte hartzea beharrezkoa da.

Jon Fano: Nik azpimarratu nahi nuke orain dela hilabete bat inguru emakume pentsiodunek Bergaran III. asanblada nazionala egin zutela. Bertan, zaintzen auzian fokoa jartzeaz gain, dekalogo bat onartu zuten zaintzekiko aldarrikapenak eta printzipioak biltzeko. Hala, Pentsiodunen Mugimenduak bere egin zuen dekalogo hori, baita Greba Orokor Feministan parte hartzeko deia ere.

Urriaren 4an egin zenuten aipatutako grebarekin zerikusia zuen lehendabiziko ekintza. Georotik, jarduera anitzak antolatu dituzue Deustun, San Inazion edota Arangoitin. Zer-nolako erantzuna jaso duzue orain arte?

A. I.: Egia esan, ez da oso erraza izaten ari pertsona talde guztiengana heltzea. Gainera, hedabideek ez dute alde horretatik gehiegi laguntzen, greba bera eta bere aldarrikapenak ez direlako interesgarriak haientzat, ezta Jaurilaritzarentzat ere. Bestalde, proposatzen ari garen greba zaila izan daiteke gauzatzea; adibidez, etxez etxeko zaintzaileentzat; batik bat, pairatzen duten eskubide faltagatik. Hala ere, buru belarri lanean gaude.

“Zaintza eskubide kolektiboaren alde” dio grebaren lemak. Horretaz gain, azken asteetan egin dituzuen adierazpenen artean, argi utzi nahi izan duzue zaintza, guztiontzako eskubide bat ez ezik, guztion betebeharrak ere badela. Hortaz, nori zuzenduta daude egun horretako aldarrikapenak?

O. S.: Zaintza gure bizitza konpontzeko, mantentzeko, egiten dugun guztia da. Alegia, zaintza lanak ere badira ondokoaz kezkatzea, garbiketa lanak eta, oro har, ikusezin diren lan horiek guztiak. Beraz, guztion ardura da auzi horri heltzea, guztion bizitzak duintzeko proposamena den heinean. Denok zaintza behar dugun neurrian, denok gara arduradun zaintza lan horiek aurrera eramateko.

“Zaintza eskubide kolektiboaren aldarriak eztabaida politikoaren erdigunea hartzea nahi dugu”



berbetan

OLATZ SUAREZ, ALAZNE IBARRONDO
eta JON FANOREKIN

▷ ▷ SAKONEAN

Olatz eta Alazne, zuek aurretik asanblada feministetan aritutakoak zarete. Aldaketa handia suposatu du Greba Komitearen sorrerak?

A. I.: Lidergotza feminista izateari utzi gabe, auzoko talde mistoen eskura utzi da antolatzeako aukera. Gune seguru eta hausnarketarakoak izaten ari dira, zonalde bereko emakume zein gizonentzat. Uste dut hemendik aurrera feminismoaren borroka horrelakoa izan beharko dela, tokian tokikoa, gizonen eta emakumeen arteko espazioak sortuko dituena.

O. S.: Emakumeek lehen lerroan egon behar dugun arren, gizonezkoek ere beraien ardurak hartu behar dituzte. Asanblada feministatik dekalogo moduko bat prestatu genuen komite horren funtzionamendu feminista bermatzeko.

Jon, zure iritziz, zein da egun horretan zein zaintza lanetan gizonezkoek hartu beharreko jarrera?

J. F.: Protagonismoa emakumeek izan behar dute. Gizonezkoon papera egun horretan haiek erabakitzen dutena babestekoa izan behar da. Ikaragarria da Komitean zenbat emakume parte hartzen ari diren, neska gazteak bereziki. Eta ni bezala, pentsiodunen mugimenduaren barnean ere, jende asko ari da greba hau babesten; batik bat, emakume pentsiodunak.



J. F.: Orain dela gutxira arte, normaltaz hartzen zen zaintza lanak emakumeen esku geratzea. Hori ondo ulertzeko ezinbestekoa da gizarte patriarkala aipatzea eta horrek eragiten duen aldaketa bat abiarazteko zailtasuna. Alde horretatik, dugun erronka oso garrantzitsua da, baina arazoa ez da konponduko soilik greba batekin.

Antolatutako deialdiak hiru berezitasun ditu: greba, orokorra eta feminista. Gaurdaino uztartu ez diren ezaugarriak direla kontuan harturik, zerk eraman zaituzte hala jokatzera?

O. S.: Feminista izango da, azken batean, zaintzaren aferak genero problematika zeharkatzen duelako guttiz, arraza eta klasea zeharkatzen dituen bezala, eta ukaezina delako zaintza lanak emakumeengan erortzen direla nagusiki. Gizonek dute ez zaintzearen pribilegioa eta, hala izaten jarraitzen duen bitartean, emakumeak bigarren mailako biztanleak izaten jarraituko dugu, baita esparru honetan ere. Orokorra da, denok daukagulako zaintza lanen beharra; egungo eredu ez da jasagarria.

J. F.: Orain arte egindako greba feministak emakumeei zuzenduta zeuden eta oraingoan aldaketa bat eman da. Gure iritziz, sozializatu egin behar dira zaintza lanak eta horrek eskatzen duena zera da: zaintza lanak publikoak izatea eta zaintza komunitarioa dela ulertzea. Gainera, niretzako bada ahaztu ezin den zerbait, azaroak 30eko greba Euskal Herrian egingo da soilik; beraz, izaera nazionala ere badu.



Greba egunaren zergatia aintzat hartuta, zaintza lanetan diharduten langileekin bildu zarete euren ikuspuntua jasotzeko. Hala ere, zaintza kontzeptuari zentzu zabalean egin diozue erreferentzia. Zergatik?

O. S.: Okerreko perspektiba hartzea izango litzateke zaintza soilik lan esparrura mugatzea, soldatapeko jardun gisa ulertzea; hain zuzen ere, zeregin komunitarioa ere badelako. Beraz, uste dugu ikuspegi hori zabaltzeko beharra dagoela, zaintza sistema komunitario baterantz joateko eta mundu guztia zaindua izan ahal izateko. Zaintza lanak jasangarri egiteko, jende batek bere bizitza-estiloa zeharo aldatu behar du.

J. F.: Zaintza kontuaren atzetik, oso garrantzitsua deritzogun kontu bat dago: baldintza ekonomikoak. Arazoa errotik konpontzeko, lan munduan gauzak goitik behera aldatu behar dira; esate baterako, soldata duin eta parekatuen edota kontziliazio neurri zabalagoen bitartez. Pentsiodunen kasuan, adibidez, guretzat lehen-tasan bat da, genero arrakala arintzeko, emakumeentzako gutxieneko pensioa 1.080 €-koa izatea.

“Zaintza sistema publiko eta komunitario bat” ezartzeko eskatzen diozue instituzioei. Zertan datza, zehazki, eskaera hori?

A. I.: Kalitatezko zerbitzu publiko bat izatea eta ez pribatua. Alegia, botere publikoak finantzatzutako sistema izatea, zeinak langileen baldintza onak bermatzen dituen, merkatu lehiatik aldentuta. Horretaz gain, ezinbestekoa iruditzen zaigu zaintza lanak biztanle guztion eskura izatea, eskubide kolektibotzat aitortzea eta tokian tokiko kudeaketa ere izatea.

Gaur egun, zaintza lanekin zerikusia duten lanpostuek prekarizazio baldintza nabarmenak pairatzen dituzte; horien artean, gehiengoa Europar Batasunetik kanpoko emakumeak dira. Alde horretatik, zein da zuen aldarrikapena?

A. I.: Batez ere, bi puntu nagusitan labur daiteke: alde batetik, atzerritarren legea indargabetzea eta, bestetik, zaintza langileen egoera erregularizatzea.

J. F.: Aipatu duzun bezala, arlo horretan langile asko atzerritik etorritako emakumeak dira. Horregatik, arazoa errotik konpondu nahi badugu, haien eskaerak eta eskubideak defendatu behar ditugu, beste edozeren gainetik.

O. S.: Guztiz ados nago kideek esandakoarekin. Piramidearen bazterren bazterrean daude. Inork aurrera atera nahi ez dituen lanak egiten dituzte.

“Feminista izango da, azken batean, zaintzaren aferak genero problematika guztiz zeharkatzen duelako”



EUSKARA

Errekaurti saria: Etxean liburudenda

Beste urte batez, Berbaizu Euskara Elkarteak lehenengo barrutiko saltoki bat omendu du. Oraingoan, sare sozia- len bitartez bozkatzeko aukera eman eta gero, San Inazioko Etxean liburudendak jaso du *Errekaurti saria*, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan- nagatik. Agirre lehendakariaren 135. zenbakian kokatutako saltokiak urteak darama auzoko erreferentziazko liburu- denda izaten. Gogoratu beharra dago, sari honen bitartez tokiko saltokiek au- zoaren alde eta hizkuntza-dinamiketan eragiteko lana omendu egiten dela ere. Eskerrik asko euskararen alde egiten duzuen guztioi, eta... Zorionak, Etxean liburudenda!



KIROLA

35. Herri Krosa Deustutik pasa da berriro ere

Bilboko Herri Krosak eta Athletic Clubek bat egin dute, azaroaren 19an, laster- ketaren 34. edizioan. Lasterketak talde- zurigorriaren 125. urteurrena ospatzeko bi berrikuntza izan ditu: kamiseta berezia eta ibilbidearen aldaketa. Hori horrela, aurtengo Herri Krosak Deustun izan dugu berriro ere. Hain zuzen ere, kirolariak Deustuko Zubia zeharkatu dute Agirre Lehendakaria etorbidera bidean. Behin, Done Petri plazara helduta, buelta eman dute partaideek Bilborako noranzkoa hartuz, eta berriro ere Deustuko Zubia zeharkatuz. Gainera, ibilbidearen aldake- tarik nabarmenena San Mamesen eman da; izan ere, aurtun zurigorrien futbol- zelaiaren barrutik ibili dira korrikalariak.



KORRIKA

“Harro herri”, 23. KORRIKA

AEK-k antolatuta, “euskararen herria” zeharkatu du 23. KORRIKA-k. Aurtengo edizioan, euskararen aldeko mobilizazioa lrunen hasiko da, martxoaren 14an, eta Baionan amaituko da, martxoaren 24an. Guztira, hamar gau eta hamaika egun har- tuko ditu ekitaldiak. Horretan, Azterketak Euskaraz kolektiboa izango da omendua. Leloari dagokionez, “Harro herri” izan- go da aurtengoa, euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasun- naren adierazle eta erakusle. Izan ere, aurkezpena-ekitaldian AEK-k gogorarazi bezala, aurreko edizioko parte-hartzeak argi utzi zuen gure hiz-kuntzaz harro gau- dela: “Oztopo guztiak gainditzeko gai den herri harroa, eta harro KORRIKAN”.












AUZOA

Suntsitu dute Ugasko bideko ‘Baso magikoa’

Pertsona talde batek erabat suntsitu ditu Deustuko Ugasko bidean zeuden ar- telanak, “baso magiko” bezala ezagutzen zirenak. Horiek guztiz hautsita eta pinturekin eginiko marrazkiekin aurkitu dira. Inguruan, bidea oztopatzen zu- ten enborrak ere aurkitu dituzte. Artelanen egilea 71 urteko jubilatua zen, arteaz eta naturaz maiteminduta zegoena. Artista berak aitortu du ez dituela obrak zaharberrituko “inorekin arazorik ez izateko”, eta bere artea askatasunez egiteko beste txoko bat bilatuko duela baieztatu du.





Urtea: 2003

Txema Luzuriaga

Pedro Arrupe pasabidea

Urriko zenbakian, itsasadarraren bi aldeak lotzen dituen oinezkoentzako zubi horren irudi bat ikusi genuen, Deustuko Unibertsitatearen parean kokatuta. 2003an inauguratutako pasabidea, burrunntzi forma duen 1.500 metro karratuko azalera, 140 metroko luzera eta zazpi metroko zabalerako zubia da. Horren berezitasunik nabarmenena duplex motako altzairu herdoilgaitzezko eraikuntza dela da, erresistentzia eta iraunkortasun handiko materiala. Zubi baten egiturarako munduan lehen aldiz erabilitako materiala izan zen. Oinezkoen zubiaren ikuspegi panoramiko hori Iberdrola dorretik eginikoa izan zen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!^{-en}
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Optica
Avenida
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonos:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Optica
Avenida
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonos:
SAN INAZIO 94 475 11 24

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4



1924tik Deustun
Tintorería
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu 94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu




artez
euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store
BERRIO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97



Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Azaroak 30eko manifestazioak zaintzan jartzen du fokoa. Zergatik uste duzu egungo zaintza sistema aldatu beharra dagoela?



Martin Deustu

Kapitalismoak zaintza lanak esparru pribatuan mantendu nahi ditu, ordaindu gabeko etxeko lan ikusezinetan eta merkatuan prekarioki gauzatzen direnetan. Zaintza sistema publiko eta komunitario bat eraiki dezagun.



Bruno Zazpikaleak

Zaintza sistema publikoa izan behar da, eta horretarako pribatizazio geldoa baina etengabea gelditu behar da. Zaintza duinak jasotzea ezin da pribilegio bat izan.



Rakel Deustu

Zaintza ezin da pribilegio bat izan, ezin dugu utzi enpresa pribatuen eta fondo buitren esku. Zaintza lanak ekarpen handia egiten du gizartean zein ekonomian eta horrela aitortu behar da zaintzaileen lan egoera hobetuz.



Maider Zazpikaleak

Denok ezagutzen dugu zaintzeko lanpostua utzi duen norbait; gehienetan, emakumea. Lan mundua berrantolatu behar da, guztiok zaindu ahal izateko.



Ane Zazpikaleak

Eguno zaintza sistema lanpostu feminizatu eta prekarizatuek sostengatzen dutelako, oro har. Zaintza sistema eraldatzea ezinbestekoa da.



Unai Zazpikaleak

Eguno egoera demografikoak eta zaintza ereduak kolapsora eramán gaitu. Bizirauteko beharrezkoa da zaintzak eraldatzea.



harkua bete herna

>> KIROLA

ENTRENATZEN PROIEKTUA, KIROLA EUSKARAREN BABESGUNE

Testua: PREST!

Kukulaisi elkarteak bere proiektuaren bigarren edizioa martxan jarri du aurten, kirol guneak euskalduntzeko helburuarekin. Horretarako, Deustualdeko kirol talde eta eskoletan aurrera eramango dute, oraindik proba pilotua den egitasmoa; hain zuzen ere, Deustuko Ikastola, Inxixu Ikastola, SD Deusto, Deustuko Arraun Taldea eta Artizarrak klubak izango ditu oinarri.

“Euskarak kirolean babesgune espazioa izatea dugu helburu. Horretarako, elkarte ezberdinekin elkarlanean arituko gara”, adierazi du Eneko Irastorza Kukulaisi Aisialdiaren Topaguneko Kirol Arduradunak. Hain zuzen, Getxoko Bizarra Lepoan eta Berbaizu euskara elkarteekin arituko dira elkarlanean, entrenatzaileen eta gurasoen formazioa aurrera eramateko.

Horrekin lotuta, Kirol Arduradunak bazkideen ekarpenetatik sortutako egitasmoa dela azaldu du, elkarlan sarea goraitatzuz: “*Entrenatzen* proiektua Berbaizu Euskara Elkarteak izan zuen ideia batetik sortu zen (...) Lehenengo proba Deustun egin zenez, Kukulaisiko bazkidea den Berbaizu berari eskatu zitzaion laguntza; adibidez, gurasoen formazioak egiteko”.

Kirol guneak euskaldundu

Kirol guneak euskalduntzeko egitasmoa da honakoa; hau da, haurren euskarazko ahozketasuna lantzea eta horren bidez klubek eta eskolek euskararen erabilaren aldeko pausuk ematea bilatzen duen proiektua. Hori, ordea, modu ludiko batean jorratuko du elkarteak. Proiektuak bi fase izango ditu: partiden osteko elkarrizketak eta aurretiazko aurrelanketa.

Azken ariketa egoki burutu ahal izateko (elkarrizketak), aurrelanketa “behar-beharrezkoa” dela aipatu du Kukulaisik. Lehenengo fase horretan, hiru eragile bereizten ditu elkarteak. Alde batetik, zuzendaritza taldeak edo guraso elkarteak. Horiekien sentsibilizazio tailerrak burutuko dituzte. Bestetik, entrenatzaileak

nabarmentzen dira. Hauek formazioak jasoko dituzte, bai kirolariekin elkarrizketa eta hezkuntza lanketak burutzeko eta baita formazio teknikoak ere. Azkenik, umeak dira azkenengoko eragileak eta proiektuaren xedea.

Aurrelanketa horren ostean, grabaketak burutuko dira. Elkarrizketekin gazteen hizkuntza gaitasunak praktikan jarriko dira, ahozketasuna hobetzen lagunduz.

Kirolean gabezia

Gaur egun, kirolak gizartean duen eragina ukazina da, baita komunikazioan eta hizkuntzan ere. Izan ere, gure komunikatzeko gaitasunek, edo horretarako erabiltzen ditugun tresnek, kanpo faktore askoren eragina dute. Kirola, beraz, ezin dugu eragile horietatik kanpo kokatu.

“Kirol hegemoniko guztiak erdaraz kontsumitzen dira. Telebistan edo zelaietan entzuten den hizkuntza erdara da beti, nahiz eta talde edota testuinguru euskaldunetan izan”, azaldu du Irastorzak. Hori aldatzea da, beraz, *Entrenatzen* proiektuaren erronkarik zailena. Horretarako, egitasmoaren helburuak talde bakoitzaren testuingurura eta egoeretara egokitu beharko direla gaineratu du Kukulaisiko Kirol Arduradunak, modu naturalean kirol guneak euskalduntzeko: “Guk ez dugu ezer inposatu nahi. Baizik eta jendeak modu naturalean eta nahi duelako euskaraz hitz egitea, ez behartuta dagoelako”.



BILBO KALLING

Lander Belaustegui^x

Kapitalismoaren
Kontra
beti!!

ALDE ZAHARREAN
EROSITA: 16€

AMAKAREN ZAPIA.
URTEAN BEHIN
BISITATZEN DU.

PRIMARK
FRANKIZIA

ADIDAS FRANKIZIA
(60€)

MOBILA: 250€
GLOVO,
UBER,
AMAZON...
ERABILTZEN DITU.
EZ DU PROPINA
EMATEN.



EMAKUMEAK ERE PROTAGONISTA, EIDABEK EKOITZITAKO OBRA BERRIAN

Kuku: Ezkutuan dauden emakumeak deituriko antzezlan berriak Vivian Maier argazkilaria du inspirazio, ezkutuan dauden emakume artisten inguruan aritzeko.

Testua: PREST!

Eidabe erakundeak antzezlan berria estreinatu du azaroaren 26an: *Kuku: Ezkutuan dauden emakumeak*. Olatz Gorrotxategik zuzenduriko obrak, Vivian Maier argazkilaria estatubatuarraren bizitzan oinarrituta, hainbat emakume artisten inguruan hitz egiten du.

“Kuku haurrentzat zuzendutako ikuskizun bat da. Non argazkilaritzaren bitartez, ezkutuan dauden emakumeen inguruan egiten dugun berba”, azaldu Gorrotxategik.

Istoriari dagokionez, gaur egungo bi gazte dira antzezlanaren protagonista. Horiek beste antzezlan bat egitera datozte antzokira, baina argazkiz eta negatiboz betetako kutxa zahar bat aurkitzerakoan obraren protagonistek denbora saltoak egiten hasten dira; gaur egunetik argazkien garaietara. Hori horrela, XX. mendeak izan zituen emakume artista ezezagunetako istorioei heltzen diete gure protagonistek.

Antzezlanak, beraz, bi gai ditu ardatz: argazkilaritza eta emakumeen garrantzia. Izan ere, zuzendariak azaldu duenez, artistei egindako omenaldia da honakoa: “Lanbide horretan aritu ziren emakume artisten istorioen inguruko omenaldia da. Hortaz, obraren helburua zera da: emakume artista ezezagun horiei justizia egitea eta hurrengokoei atek zabaltzea”.



Vivian Maierren bizitza oinarri

Esan bezala, obraren ideia artista estatubatuarraren bizitza oinarritzat hartuz abiatu zen. “Argazkilaritzaren edota ezkutuan dauden emakume hauen inguruan egon ginen bueltaka Eulalia de Abaitua dela eta, Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria. Hortik, haritik tiraka, Vivian Maierren figura topatu genuen”, azaldu du Gorrotxategik.

Lauroitzakina
TEATRO ARRIJOL
AV. ZAVIA

MACHOS EN FLOR
azaroaren 10etik abenduaren 3ra

Egilea eta zuzendaritza
FELIPE LOZA
Antzezleak
KEPA ALESSO, JOSU ANGULO, AITOR ETXARTE,
QUIQUE GAGO, DIEGO PÉREZ, YERAY VÁZQUEZ.

P6
PABELLON 6
TEATRO ARRIJOL

www.pabellon6.org

KUKU

Ezkutuan dauden emakumeak



Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

azaroan estreinaldia



eidabo

ekimen kulturalak

Nahiz eta profesionalki argazkilaritzan ez aritu, “kristorengo kalitatezko argazkiak” egiten zituela dio zuzendariak. Gainera, emakume kementsua eta indartsua izan zen heinean, umeen jarraibide izan zitekeelakoan hautatu zuten Maierren bizitza: “Nahiz eta talentua izan, sekula ez zuen jakin argazkilaria zenik. Ezkutuan zegoen. Bere biografia oso kuriozosa da eta, aldi berean, kalitate handiko obrak egin zituen. Oso aproposa iruditu zitzaigun bere istorioa kontatzea”.

Umeetatik haratago

Haurrei zuzendutako obra izan arren, gazteak eta helduak ere ongi etorriak dira obra honetan. Hasiera eta amaiera zehatzik planteatzen ez duen istorioa denez, ikuslearen irudimenak lekua du garapenean. “Umeak uste baino azkarragoak dira. Euren iruditeriak ez du mugarik. Berehala harapatzen dute abstrakzioa, guk hori galduta dugu”, zehatu du Olatz Gorrotxategi zuzendariak.

Horrekin batera, antzezlaren zuzendariak antzerkira joateko erronka ere bota dio ikusle helduari: “Uste dut oso ondo sartuko direla imaginario horretan. Hala ere, konfiantza gehiago izan beharko genuke haurretan eta gazteetan, helduetan baino”.



Emakumeen egoera

Artistaren mundua beti izan da korapilatsua. Artea ogibide bilakatzea zaila baita zeharo. Hala, nahiz eta gizonezko mundu batean lan egiten dugula onartu, Gorrotxategik emakumeek beren egoera hobetzeko aurrerapausoak eman dituztela azaldu du: “Beti izan ditugu oztopoak eta ogibide guztiak izan dira zailak emakumeentzako. Baina artistena are gehiago (...) Hala ere, gizonak ez daude askoz hobeto (...) Espazioak gure beharretara egokitu beharko genituzke, eta hori gutxinaka-gutxinaka lortzen ari gara”.



harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

DIN DAN DON

Testua: Ainhoa Maiztegi

Hasi baino lehen, gabon-zaleak ez zaretenoi zuzenduko naiz: barkatu. Badakit aste batzuk falta direla oraindik gabonei hasiera emateko baina bi hilabetero islatzen ditut neure kontuak Prest! aldizkarian beraz, ez dago besterik. Eta, tira, ez jarri nigaz oso "hater", supermerkatuetan pelmada emoten ni baino lehenago hasi baitira.

Orain bai, txantxak alde batera utzita, kontsultan buruhauste gehien ekartzen dituen epokari buruz mintzatuko gara, zehazki abenduko hilabetearen inguruan.

Hilabete hau hainbat ekitaldi sozialez osaturik dago. Izan ere, urteko egutegi osoa hartuz gero, erraz ikusiko genuke karga sozial altuena daukan hilabetea, seguruenik, urteko azkena dela; hau da, abendua. Baina, hilabete hori bereziki gailentzen duen gertara, eguberria da. Gainera, egutegian jaiegun bezala markaturiko egunez gain, hilabete honetan zehar ekimen sozial gehiago ditugu mahaiaren inguruan: bai kuadrillarekin, senideekin, lankideekin, eskolako kide-ohiekin, edota gimnasioko/pilateseko/joskintzako kideekin, etab.

Aipatu dugun bezala, hilean zehar jazoera sozial gehiago izaten ditugu. Horretaz gain, egun horiei aktibitate gutxiago edukitzea edota deskantsu falta lotzen zaie. Bestal-

de, bilgune gastronomikoetan disfrutaturiko elikagaien ezaugarrien artean, kantitatearen handipena edota ingesta energetikoaren handiagotzea ikus dezakegu.

Azken urteetan bertotik aipatu dugunez, ezaugarri horiek edukitzeak ez gaituzte jorratu behar. Baina, ikuspegi objektiboa edukitzea inportantea da, benetan ere egun hauek guregan daukaten inpaktua jakiteko. Bai positiboa eta baita aurreko urteak informazio gisa edukita hobetu ahal dena.

Horretarako, hausnarketa bat egitera animatzen zaituztet honako galderei erantzuna bilatuz:

- Nola bizitzen dituzu eguberri garaiko egunak? Zer emozio sorrarazten dizue?
- Mahai baten inguruan ezik, zer beste motatako jarduerak egitea gustatzen zaizu?
- Zeintzuk dira gehien disfrutatzen dituzun uneak?
- Zelan erlazionatzen zara egun hauetan presente ditugun elikagai bereziekin? Errestrikzioarekin? Kontrol ezarekin? Edota malgutasunez?
- Ba al daude aldaketarik zure egunerokotasunean? Esnatze-oheratze ordutegian? Ikasketa-lan ordutegietan? Aisialdiko ekintzetan?



harkua bete herba


Galdera hauetako erantzunen bat urteko beste sasoietan jarraitu nahi duzun bizi-estiloa zapuzten badu, badaukagu aurten fokua non ipini: mantendu nahi dituzun ohiturak zerrendatu, islatu grafikoki horri-egutegi batean abenduko ekimen sozial guztiak, planifikatu zuretzako autozaintza espazioak, naturan egoteko denbora atera, disfrutatu konpainiaz, gozatu bakardadeaz, eman zure gorputzari mugitzeko aukera, deskantsatu eta konektatu zeure pasio eta grinekin.

Besterik gabe, gabon zorionsu eta kontzientek opa dizkizuet.

Besarkada handia,
Ainhoa.



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



PATRI MUÑOZ

Script eta kulturzalea

ZINEMA JATORRIZKO HIZKUNTZAN EDO EUSKERAZ?

Jakina da pelikulak jatorrizko hizkuntzan ikusi behar direla, eta ez naiz ni hori ukatuko duena izango, baina askotan horrelako baieztapenak nagusi diren hizkuntzen posizioetatik egiten dira. Pelikulak jatorrizko bertsoan ikustea aukera onena da zalantzarik gabe baina kontutan hartu beharreko “baina” batzuk egon badaude, batez ere gutxiagotua diren hizkuntzen kasuan.

Lehenik eta behin ni bezala ele bi (ama hizkuntza, nire kasuan gaztelaina, eta euskera) baino menperatzen ez duen batentzako, beste hizkuntza batean sortutako pelikula bat jatorrizko bertsoan ikustea zaila suertatzen da. Azpituak oso erabilgarriak dira eta askotan erabiltzen ditugu baina kasu horretan gure arretaren zati garrantzitsu bat irakurtzera bideratzen dugu eta menperatzen dugun hizkuntza batean modu natural eta errazean jasoko genuke informazio asko galtzen dugu. Horrela, paradoxikoki, saihestu nahi genuen horretan -pelikulak bere jatorrian zituen ñabardura guztiak ez gureganatzea- erortzen gara.

Eta zelan jokatu menperatzen dugun bi hizkuntzen artean erabaki behar dugunean? Zer gertatzen da jatorrizko hizkuntza ez den hori hizkuntz gutxiagotua denean? Zeri ematen diogu lehentasuna? Pelikula jatorrizko hizkuntzan ikusteari, gazteleraz adibidez, edo euskaraz ikusteari? Zeintzuk dira hautaketa bakoitzaren prezioa eta galerak? Eta batak zein besteak sortzen zaizkigun galderak eta kontraesanak? Zinema jatorrizko hizkuntzan edo euskeraz?

Doinua: Larogeita hamar urte



ANDER ANAKABE LEKUE

Elorri bertso-eskolako kidea

Brebeta euskaraz lortuz
Aurrera goaz pausoka
Ta pantailak euskalduntzen
Bada nahikoa erronka
Hizkuntza-ereduei noiz
Jarriko diegu nota?
Villabonan euskaltzale
Independentistok topa
Hirurogeita hamar mila
Oldarraldiaren kontra
Abenduaren 3a,
Gero Durangon azoka
Urte berrirako dugu
Korrika ateak joka
Motibazioa dugu
Zeregina badago ta

Munduko hizkuntza zailena
Omen da gure euskara
Beraz nahikoa meritua
Du existitzeak jada
“Ona edo euskalduna?”
Dena dikotomiara
Hortaz ona ezin izan
Euskalduna baldin bada
Baina ez gaitezen joan
Ezkorren joerara
Primeran-ekin salto bat
Online plataformetara
Hamargarren aldiz bete
Du Errigorak otzara
Euskaraz nahi dugu bizi
Ta euskaraz biziko gara

eidabe

ekimen kulturalak

www.eidabe.com

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu



eskatu eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun
hitzaren arabekoak izango
direla zure harremanak?

Bilbao

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

e//
euskaraz
BARRA // BARRA

GILTZATAKOA



5€

KIKARA

2€



BERBAIZU DENDA

BUELTAN DA!

LANPASA

*ESKARIPEAN

20€

